



Elvira Zulueta jauregian kokatu nahi du Gasteizko udal gobernua Ardoaren Museoa eta gune tematikoa. PHOT.OX

"Arabako Errioxa bahitu nahi dute"

Elvira Zulueta Urbaranekin ireki asmo duen Ardoaren Guneak hautsak harrotu ditu Arabako Errioxan; "astakeritza" jo du Lezako Mahaia, eta salatu du Errioxako ospea erabiltzea "negozio pribatu bat egiteko".


EUGARTE LOPEZ DE ARKAUTE GASTEIZ "Zeini bururatuko ote zitzaien Donostian zabaltzea Tolosako babarrunaren gune tematikoa? Edo Iruñean Nafarroako zainzuriaren museoa? Ez du inolako zentzurik. Bada, orduan nola izango da Gasteiz Errioxako Ardoaren erakusleihoa?". Suminduta mintzatu da Lezako Mahaiko kide Txomin Ruiz

ALEArekin, Gasteizko udal gobernua Elvira Zulueta jauregian ireki nahi duen Ardoaren Guneari buruz: "Ardoaren gune tematikoa bat Arabako Errioxan egon beharko litzateke, Gasteizek ez du mahastirik eta!". Ruizen esanetan, Arabako Errioxa marka "bahitu" nahi du Gorka Urbaran Gasteizko alkateak hiriburua sustatzeko. "Lau pareta artean giltzapetu nahi

dute Arabako Errioxa izena, eskualdetik berrogeita hamar kilometrorra dagoen eraikin batean. Astakeri bat da Urbaranekin egin nahi duena; Gasteizko zentralismoak ez du ez hanka ez bururik", ondorioztatu du.

"Negozio pribatu bat"

Lezako Mahaia osatzen duten kideek arbuia dute diru publikoarekin "negozio pribatu" bat bultzatu nahi izatea. Izan ere, taldearen salaketaren arabera, Arabako Errioxako sei upategik osatzen duten Araex enpresari utziko baitzaio balizko Ardoaren Gunearen kudeaketa. "Upategi pribatu batzuen interes pribatuak tartean egoteak susmo txarrak sortzen ditu", esan du Ruizek, eta gaineratu du Araex enpresa izango dela egitasmoaren onuradun nagusia: "Erakusleihoa aparta lortuko baitu bere burua



Txomin Ruiz. ALEA

sustatzeko". Urbaranekin asmoaren harira, Lezako Mahaiko kideak zalantzan jarri du Arabako herritar guztien diruarekin upategi pribatuaren talde baten "interes pribatuak sustatzea", eta faltan jarreka kritikoa bat. "Arabako Errioxa gutxietsi dute nabarmendu du Ruizek-, eta minduta sentitu gara; jakin badakigu egitasmoa oso aurreratu dagoela, eta ez dut uste gelditu ahal izango dugunik, baina hemengo erakundeek, Kuadrillak gutxienez, zerbait esan beharko luke".

"UPATEGI BATZUEN INTERES PRIBATUAK TARTEAN EGOTEAK SUSMO TXARRAK SORTZEN DITU"

"LAU PARETA ARTEAN GILTZAPETU NAHI DUTE 'ARABAKO ERRIOXA' IZENA, GASTEIZ SUSTATZEKO"

"Izaera kritikoa sustatu nahi dugu"

Samaniego jauregiaren "salmenta-oparia"-ren inguruan eginiko adierazpen kritikoa izan zen Lezako Mahaia jendaurreko aurkezpena, baina eskualdeko bizilagun hauek 2016. urtetik ari ziren halako talde bat sortzeko asmoarekin. "Gizarte narkotizatuta batean bizi garela ematen du, eta izaera kritikoa sustatu nahi dugu, jendarte kritikoa lortzeko haziak erreitzen ari gara", azaldu du Txomin Ruizek mahaiko kideak.

Halere, herraldean Arabako Errioxak indar handiagoa izatea nahi du Lezako Mahaia, eta eskualdean dauden desorekak ikusarazi eta konpontzeko urratsak egitea. "Landa eremua gero eta abandonatuagoa dago, eta horretan ez du laguntzen Gasteizko zentralismoak, baina, era berean, oso kritikoa gara Guardiaren gainerako herriekiko duen zentralismoarekin". Mahaia ustez, bi abiadura dituen eskualdea da egun Arabako Errioxa: "Batetik mendialdeko herriak daude, apur bat abandonatuta daudenak, eta, bestetik, bultzatzen duten alde turistikoak dago, Arabako Errioxako irudi nagusia, Guardiaren, Eltzegon edo Bastidan zentratuta".

Bai erakunde publikoek zein herritarrek oro har orain arte egin dituzten hausnarketak "begi onez" jaso dituztela uste du Ruizek, eta horren adibide gisa jarri du Arabako Errioxako azken batzarrak eskualdean dagoen desorekari buruz hausnartzea, eta herri guztiak berdin bultzatzeko beharra azpimarratzea.

Halaber, gogoratu du Ruizek Lezako Mahaia izan zela lehena ohartarazi zuena Abiadura Handiko Trenaren bi ibilbidek Arabako Errioxa zeharkatuko zutela, eta horrek ekarriko zuen hondamendia. Ondoren etorri ziren bai eskualdeko udalek zein Kuadrillak eta gainerako erakundeek eginko salaketak. "Batzuek itxaropena dute AHT-a ez dela hemendik pasatuko, baina badaezpada ondo dago alerta jotzea".



Lizarralde soinua
txalaparta S.L.

Audio Profesionala. Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ